

IL AZALPEN PROBA • <i>Bost ahizpa</i>	
Kodea* .....	Taldea .....
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** pasarte hori: aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
  - > Ondoren, **zehaztu** pasartea (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obraz ezer ez dakien irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
  2. Helburua **–zure IL lanean bezala–**: obraren edukia eta ezaugarriak azaltzea, eta **iritzia** ere ematea.
  3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
  4. Neurria: **300** bat hitz; txukun (zirriborrorik gabe, letrakera argia...) eta margenak utzita.
  5. Amaitutakoan, kontatu hitzak (idatzi /50 /100 /150... markak) eta hemen azken kopurua: .....

—Gabon, neskak! —agurtu zuen heldu berriak, urduri eta irribarrez—. Zenbat denbora, ezta? Barkadazue berandu heldu izana, mesedez. Ikusten dut denak nire zain zaudetela, eta bene-benetan sentitzen dut. Garaiz nentorren, baina euri madarikatu honek atzeratu nau Aizpurutik honako bidean. Badakizue zubi beldurgarri horretako errekaak ia gainezka egin duela eta putzu zabal bat dagoela bidean? Auto eta guzti irentsi ez nauenean!

Emakume gazteari hitz egiteko modu azkarrean nabari zitaion urduri zegoela, ziurrenik, egunerokoa ez zuen egoera bizi izaten ari zelako.

—Barka, baina... —esan zuen Pilarrek, zutik jartzeaz batera—. Nor zara zu?

—Hainbeste denboran elkar ikusi ez eta orain ez nauzue ezagutzen. Agustina naiz.

—Agustina? —Garbiñeren galdera—. Agustinen andregaia?

—Ez, ez —ahotsa apaldu zitaion Agustinari—. Agustina naiz, zuen ahizpa. Zuen lehengo neba Agustin ez da jadanik existitzen.

Hilerriko isiltasuna festa alaia da, Agustinen hitzen ondoren sortu zen isiltasunaren ondoan.

—Barka, mesedez —erregutu zuen Anastasiok pixka bat geroago, eztultxo bat egin ostean—. Neskameari afaria zetbitzatzeko esatera noa. Zatozte, mesedez, jangelara nahi duzuenean.

IL AZALPEN PROBA • <i>Bost ahizpa</i>	
Kodea* .....	Taldea .....
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** pasarte hori: aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
  - > Ondoren, **zehaztu** pasartea (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obraz ezer ez dakien irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
  2. Helburua –**zure IL lanean bezala**–: obraren edukia eta ezaugarriak azaltzea, eta **iritzia** ere ematea.
  3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
  4. Neurria: **300** bat hitz; txukun (zirriborrorik gabe, letrakera argia...) eta margenak utzita.
  5. Amaitutakoan, kontatu hitzak (idatzi /50 /100 /150... markak) eta hemen azken kopurua: .....

Goizeko bederatziak ziren norbait Areitioaurtena jauna zenaren etxeko goeletako ateetan joka hasi zenean, ukabilka eta garrasika.

—Jaiki! Jaiki zaitetze denak! —zioen oihuka, bihotza estu eta oso urduri.

Oihuak entzun zituztenek laster jakin zuten Ana zela logela guztietan ate joka zebilena ero hutsen moduan.

—Sukaldera etorri behar duzue! Goazen sukaldera!

Txabusinak nahiz eguneroko arropak jantzita Anaren ahizpak eta Leire azkar ziren lehen solairuko korridorean, zer gertatu ote zen jakin nahian. Natic ez zien, ordea, zuzenean erantzuten, berarekin sukaldera joan zitezen nahi baitzuen.

—Goazen sukaldera! —errepikatu zuen Anak auskalo zenbatgarren aldiz.

Eskaileretan behera abiatu ziren bost ahizpak eta neskatoa, sentitzen zuten jakinmina asetzeko nahiak bultzatuta eta Ana bera lehenbailehen lasaitu eta halako garrasiak egiteari utz ziezaion.